

Amasamendiko atea berroneratzeko proiektua

2021/05/13

Sustatzailea

AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

Proiektu egilea

KIMUBAT
PAISAIA

Errebote plaza z/g, 20150 Amasa-Villabona (Gipuzkoa) - Tel. 943691200. IFK P2008100F

I. DESKRIBAPEN MEMORIA

1. OROKORTASUNAK.....04
1.1. ARRAZOIA
1.2. SUSTATZAILEA
1.3. EGILEAK
1.4. HELBURUAK

2. LABURPENA..... 05

3. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA..... 07
3.1. AURREKARIAK
3.2. EZAUGARRI OROKORRAK
3.3. PLANGINTZA ETA IRISMENA
3.4. .DESKRIBAPEN XEHETUA

4. BALORAZIOA ERRAZTEKO INFORMAZIOA 16

5. LANEN EGIKARITZA PLANA 18
5.1. OBRA PLANA
5.2. LANAK BURUTZEKO EPEA OROKORRA
5.3. DENBORA PLANA
5.4. KRONOGRAMA

6. SEGURTASUNA, OSASUNA ETA HONDAKIN KUDEAKETA.....21
6.1. AURREKONTU LUBRTUA
6.2. AURREKONTU XEHETUA

7. AURREKONTUA 22
6.1. AURREKONTU LUBRTUA
6.2. AURREKONTU XEHETUA

8. IDAZLANAREN EGILEAK 23

II. MEMORIA TEKNIKOA

P0. 1. Kokapen orokorra
P0. 2. Mandubieta ingurua
P0. 3. Otsabiko eremua

III. AURREKONTUA

1A. AURREKONTU LABURTUA

2A. AURREKONTUA PARTIDAKA

MEMORIA DESKRIBATZAILEA 01



Amasamendirako sarbidea berroneratzeko proiektua

2021/05/13

AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

Errebote plaza z/g, 20150 Amasa-Villabona (Gipuzkoa) - Tel. 943691200. IFK P2008100F

Orokortasunak

ARRAZOIA. Proiektu honen izateko arrazoia Amasa-Villabonako udalak mendi publikoen kudeaketan daraman ibilbidean sakondu eta berau gizarteratu ahal ingurunearen gaitasuna hobetzean datza azpiegitura berde gisa erregulazioa eta gozamenerako sustau ahal izateko.

HELBURU NAGUSIA. **Proposamen honen xede nagusia udalerriko baso publikoa den amasamendiko ingurunearen segida ekologikoa berreskuratzeaz gainera eta ingurune periurbanoko parke degradatu bat mendi ingurune honetarako sarbidea erregulatzeko ardatz gisara berreskuratzean datza.**

Helburu nagusi honen barnean beste hainbat azpi helburu ahalbidetuko dira:

- Natura ingurunearen erresilientzia handitzea bertako landaredia landatuz.
- Klima-aldaketarekiko erresilienteak diren ekosistemak indartzea eremua erregulatuz.
- Klima-aldaketaren aurrean gizarteko pertsona zaurgarrienentzako babesgune bat sustatzea.
- Klima-aldaketarekiko eta balio naturalen babesarekiko gizarte-kontzientzia indartzea, udal zein lurralde mailan.

Horiek guztiak indarrean dagoen eta GFAk bultzatzen duen Gipuzkoako klima-aldaketaeren aurkako estrategiaren baitan kokatzen dira,

SUSTATZAILEA. Proposamen honen sustatzailea Amasa-Villabonako udala da.

LAN TALDEA. Proiektu hau Izarraitz Lorezaintza SLL enpresak osaturiko lan talde teknikoaren emaitza da. Proiektu honen idazkaritza eta diseinu lanak ondorengo pertsonek gauzatu dituzte:

Arkitektoa: Maria Odriozola Soraluze
Lorazain paisaialaria: Iban Simon Iruretagoiena
Nekazal Ingeniari Tekniko eta Paisaialaria: Iker Goikoetxea Arana
Koordinatzailea: Mikel Igarataundi Peñagaricano

Laburpena

“ Amasa-Villabonako udalerriak onura publikoko mendi eremu publiko handia du bere babesean eta ondorioz Gipuzkoarrontzako honen estrategikoak diren azpiegitura berde indartsu bat sustatzen ari da eraitsiriko piñudiak aldizka bertako segida ekologikora bideratuz. Ondorioz esku artean duzun proiektu honek eremu honen berreskurapena eta erregulazioa sustatu nahi du, Otsabiko eremua bisitariak zein herritarrentzako abiapuntu/topaleku gisara antolatuz eta guztientzako sentsibilizazio aktibo bat izango den eremua berreskuratuz”.





Villabonako udalerriak hartzen duen azaleraren %80a, landa eremua eta mendiak okupatzen du. Eta hirihguneak %20. Baina Villabonako udalerriko biztaleen %80a hirigunean bizi da eta gainontzeko %20 landa eremuan. Villabonako Onura Publikoko mendia, hots, Villabonako udalerrian bizi diren herritar ororena den mendia, 1.000 ha-koa da gutxi gora behera. **Gipuzkoan, pieza bakar batean horrelako azalera okupatzen duen Onura Publikokoa den mendi bakarrenetakoa da Amasamendia**, eta Villabonako Udalak, urteak daramatza hori gizartearen aurrean balioan jartzen.

Gaur egungo errealitate sozialean, Amasamendiak, gure gizarteari zerbitzu ekosistemikoak eskeintzeaz gain, norberaren OSASUNA garatzeko zerbitzuak eskaintzen ditu; hala nola kirol jarduera, arnasgune, lagunekin aire librean biltzeko gune eta aisiarako beste hainbat ekintzetarako gune bilakatuz. Hori guztia, egun bizi dugun pandemia egoerarekin nabarmen hazi da, eremu seguru bat da mendia herritarrentzat, eta udalak, etorkizunean gerta daitekeenaren aurrean baliabideak prest izateko bidean da.

Hori baliatuz, hirigunea Amasamendiarekin lotzeko harrera gune, elkargune edo lotura gune bat berreskuratu nahi du, egun degradatuta dagoen Otsabiko parkea berreskuratuz. Jatorrian eremu hau zabortegi bat izan zen 90.hamarkada arte eta ondoren parke gisara berreskuratu harren txabolismoak eta erabilera faltak bere degradazioa eragin dute kalteak eta zaborra bilduz.

Bi elementu nagusi hauek elkarrekin uztartuz proiektu honek bultzatu nahi duen berreskurapen lanak bi lerro nagusitan bat egiten dute aipaturiko laguntza honen xedearekin:

a) ESTALIRIKO LUR AZALERA AREAGOTZEKO LANAK

- **BIRLANDAKETAK.** Mendabietako ingurunean eraitsiko den piñudian bertako hariztia berreskuratzeko 8.000 zuhaitz birlandatuko dira 22Ha-ko hedadura duen partzela batean. Bestetik maila xumeago batean bertako zuhaixkez egituraturiko masak birsortuko dira egun degradaturiko Otsabiko ingurunean. Birlandaketa honi herritarrekin auzolanean egingo den beste landaketa lanak gehituko zaizkio honetarako beharrezko komunikazio lana eta sentsibilizazioa burutuz.

b) INGURUNEAREN GAITASUN HOBEKUNTZA

OTSABIKO EREMUA. Otsabiko ingurunea parke periurbano gisa berreskuratzeaz gainera Amasamendiko ate gisara artikulatuko da egungo zerbitzu ekosistemikoak ezagutarazi, ibilbide sarea antolatu, natur kirolak egiteko gune bat eskeini eta ibilgailu zein autobusentzako iritsiera gune bat sortuz herritik gertu eta amasamendiaren magalean.

Kontuan hartzekoa da eremu honetan berriki auzolanean “puntrack” pista bat erdi atondu dutela. Ari honi tiraka eremu honetan amasamendik gizarte osoari eskeintzen digun zerbitzu ekosistemiko aldeko eskeintza bat artikulatu nahi da ondoko ildo hauetan:

1. **Erregulazio eta sentsibilizazio lana** (informazio mahaiak, bizikleta garbitzeko gunea, atsedegunea, señaleztapena edo ur puntuak) gizartearentzako erreferentziazko gune gisara antolatu nahi da. Mendiaren erabilea jasangarria sustatuz
2. **Eremua natur kirolerako birgaitu** daitekeela ikusi da (yoga, eskalada, slack line…)
3. **Amasamendiko hainbat ibilbideren abiapuntu** bilakatu (oinezko “PR” bideak, BTT-ko ibilbideak).

Balorazioa errazteko

Datu orokorrak

- **234.788 m²** Orotara esku hartuko den eremuaren azalera.
- **227.500 m²** Hobetuko den lurrazal eremu oso.
- **Baso mistoaren segida** ekologikoa sustatuz landaretza hobetzea.
- **Co_2 isurien xurgapena areagotzeko** baso azpiegitura sortzea.
- **Ingurunearen erregulazio gaitasuna** hobetzeko erregulazio lana.
- Sentsibilizazio aktiboa eta informazioa

Segida eta hobekuntza lanak

- **227.500 m²-ko harizti kandudunaren** azalera indartuko da.
- **8.000unt-ko bertako haritz** (quercus robur) landatuko dira eta segidakoa beste landareak.
- **Auzolan baten deialdia** sustatuko da herritarrak proiektuarekin bat egiteko
- **500 zuhaitz mikorizaturen** hornikuntza burutuko da auzolanerako.
- **400m2 faunarentzako** babesgune diren heskai naturalak sustatzea

Ingurunearen gaitasuna

- Esku hartze eremurako sarbidea erregulatzeko azpiegitura autobusentzako.
- Mendizale eta txirrindularientzako zerbitzu gunea (ur puntua, atsedengunea, ...)
- Amasamendiren erabilerarako informazio mahaiak.
- Natur kirolen baloreak hedatzeko elementu ezberdinak.
- Bisitarien gozamen eta ezagutzarako harrera eremu batean biltzea.

Klima aldaketara egokitzea

- Bisitarien dispersioa ekiditeko leku batean bildu eta garraio kolektiboa erraztea
- Oinezko zein bizikleta bidezko garraioa sustatzea.
- Hariztia nagusitzen den baso mistoaren berreskurapenarekin Amasamendik duen erresilientziarako gaitasuna handitu (adaptazio eta mitigazio ekintza)

Proiektuaren deskribapena

3.1. AURREKARIAK

Amasamendi Villabonako Onura Publikoko mendia da, 1.091ha-ko azalera duen pieza bakarreko mendia da, eta gutxi dira horrelako azalera duten mendi publikoak Gipuzkoa osoan, horrek egiten du berezi. Historian zehar, udalak eta unean uneko baso administrazioak kudeatu du mendi hau, momentuko beharren arabera, helburu ezberdinetara bideratuz.

XVII. eta XVIII. mendeetan, Amasamendin egurra abarrakitu da larreak erabiltzeko, eta luberritzeen auzo-aprobetxamenduak egiteko emakidak egiten zituen udalak.

XIX. mendean, izurriteek deforestazioa edo baso-soiltzea eragin zuten Villabonako lurretan. Gaztainondoaren tinta, txankroa eta haritzaren oidioa izan ziren garrantzitsuenak. Garai hartan, basoen gainbehera nabarmenari aurre egiteko hazkunde azkarreko espezieak bilatu ziren eta errentagarritasun ekonomikoa gailendu zen ororen gainetik; ondorioz, intsignis pinua sartu zen, *Pinus radiata*, hain zuzen ere. Amasamendiko intsignis pinu-sail gehienak berri samarrak dira, 60. hamarkadakoak, eta baserrietako nekazaritza-jarduera erabat edo neurri batean baztertu den garaiarekin bat dator.

XX. mendearen amaieran gertatutako aldaketa ekonomiko eta sozialek baso- eta egur-errekurtsoen ondasun eta zerbitzuen eskaeretan eragin handia izan dute. Garai batean egurraren errekurtsoa diru-sarrera garrantzitsua izan bazen ere, gaur egun, zaila egiten da etekina ateratzea matarrasari.

Azken hamarkadetatik hona, gizarteak mendia aisiarako erabiltzen du, eta egunetik egunera handitzen joan da natura eta biodibertsitatearen kontserbazioaren aldeko ardura, eta, halaber, ekosistema hauek betetzen dituzten ingurumen-zerbitzuak (besteak beste lurraren

higaduraren kontrola, uraren kalitatea eta hornikuntza, CO2-aren finkatzea, klimaren kontrola, e.a.) kontserbatzearen aldeko jarrera.

Testuinguru honetan, ingurumen-zerbitzuen balioak, biodibertsitatearen kontserbazioak eta aisiarako erabilerak, geroz eta garrantzia handiagoa hartu dute gurean. **Hori horrela, Villabonako Udala, Amasamendi Onura Publikoko Mendiaren Kudeaketa, mendiak gordetzen dituen ekosistemak, basoak, larreak...., ekosistemen-zerbitzuen gaitasuna handitu eta Klima Aldaketaren aurkako borrokari aurre egiteko tresna modura bideratzen ari da azken urtetan.** Izan ere, bizi dugun klima larrialdiaren aurrean, administrazio publikoek eredugarri izan behar dute eta Villabonako Udalak, mendiaren kudeaketan eredugarri izan nahi du; Amasamendiren kudeaketan hartuko diren erabaki eta tokiko ekintzak, globalean eragingo baitute, Klima Aldaketak eragingo dituen aldaketak neurri batean arinduz.

2017an, Villabonako Onura Publikoko Amasamendi mendiaren Antolaketa Plana idatzi zuen Udalak. Antolaketa Plan honek, Amasamendi mendiaren ikuspegi integrala gordetzen du, eta mendian egun egiten diren erabilera ezberdinak (basogintza eta larregintza ustiaketa, aisia, kulturala) batu, eta mendiaren kudeaketa jasangarria egitera bermatuko duen ekintzak zehazten dira. Plan honen helburua, Amasamendian egiten diren erabilera ezberdinen kudeaketa integral bat egiteaz gain, Amasamendiak gizarteari eskaintzen dizkion ekosistemen zerbitzuak, zerbitzu kulturalak eta identitarioak balioan jartzea da.

Halaber, 2020ko otsailean gure gizarteak jasandako COVID-19aren pandemiaren ondorioz, Villabonako eta Gipuzkoa osoko bizilagunek Amasamendia baliatu dute pandemiak eragindako murrizketen ondorioz sortutako beharrei aurre egiteko; mendi ibilbideak, bizikleta ibilbideak, biltzeko guneak erabiliz... Amasamendiak, aire librean ekintza mota ezberdin asko egiteko aukera paregabe eskaintzen baitu.

EGUNGO LANDAREDIA. Orokorrean, mendiak osatzen duen 1.091 hektareetan lau landaredi-mota nagusi daude; larreak (203ha), hostozabalak (326ha), intsignis pinua (190 ha) eta beste hainbat konifera (372 ha).

Larreak eta belardiak: Amasamendiko larreak nagusiki herriko ganaduzaleen buruak bazkatzeko mantentzen dira. Urte guztian zehar berde mantentzen dira eta gure paisaiaren elementu bereizgarria dira.

Hostozabalak: Amasamendiko zuhaitz hostozabalak habitat natural eta ez natural edo antropikoetan banatu ditzakegu.



Irudia: Belabieta aldeko larreak



Loatzo aldeko hostozabal basoa

Hosto zabala duten zuhaitz hosto erorkorren landaketa artifizialek, haritz amerikarra (*Quercus rubra*), sasi-akazia (*Robinia pseudoacacia*), platanoa (*Platanus sp.*)… horiek guztiek bertako basoa ordezkatzen dute, eta; beraz, berezko habitata murriztu egiten da.

Platanoa ibai eta erreka ertzetan landatzen da, haltzadiaren kalteetan. Haritz amerikarraren kasuan, bere hazkuntza bertako haritzarena (*Quercus robur*) baino azkarragoa denez, espezie horren landaketa bultzatu da. Beste espezie exotiko bat sasi-akazia da, eta exotikoa izateaz gain, inbaditzailea ere izan bada. Hori arazo handia da, bertako espezieentzako konpetentzia baita. Gainera, hazkuntza azkarrekoa da eta baso gazteetan oso ugaria.

Hosto zabala duten zuhaitzen habitat naturalak, bertako zuhaitz hostozabalen baso gazteak, haltzadiak, hariztiak *(Q.robur)* eta pagadi basofilo eta azidofiloek *(Fagus sylvatica)* osatzen dute.

- Koniferoen landaketa artifizialak: Koniferoak dira baso-ustiapenari begira gehien erabiltzen diren espezieak, beraien hazkuntza azkarra da eta. Ezagunena intsignis pinua (*Pinus raidata*) da.

Landaketak Amasamendiko muinoetako magaletan kokatzen dira, hariztia kokatzen den altueran. Garaieran gora egin ahala, beste espezie batzuk landatzen dira, hobeto jasaten baitituzte altuera horretako baldintza onbrotermikoak. Besteak beste, alertzea (*Larix s.p.*), Lawson altzifrea (*Chamaecyparis lawsoniana*), Douglas izeia (*Pseudotsuga menziesii*), larizio pinua (*Pinus nigra*) e.a.

Landaredi potentziala

Landare-mota potentzialak, giza eraginik gabe udalerrian garatu beharko litzatekeen landarediaren berri ematen digu. Amasamendik dituen ezaugarri klimatiko, geologiko eta orografikoen arabera naturalki aurkituko genukeen landaredia izango litzateke.



Irudia: Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa (morez), Haltzadi kantauriarra (marroiez) eta pagadiak (beix eta berdez) (Iturria www.geo.euskadi.eus))

Ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra, erreka eta ibai bazterretan garatzen den landaretza da.

Harkaizti silizeoetako landaredia, malda handiko harearrizko formazioen azaleramenduak, non ez den flora zurakara garatzen.

Hostozabalen baso misto mesotrofo atlantiarra, hostozabalen baso misto mesotrofoa lurzoru ondu eta aberatsetan agertzen da, haran ondoetan edota substratu basikoko azaleramenduetan. Lurzorua harritsua izan badaiteke ere, erlatiboki gune hezeak dira eta gehienetan laiotzean agertzen dira. Ez da zuhaitz-espezie jakin bat gailentzen. Muinoetako estaietan kokatu ohi da (500-600 metrotik behera).

Quercus robur-en harziti azidofiloa, potentzialki kantauriar isurialdeko muinoetako estaietan (500-600 metrotik behera) baso-mota nagusia izan beharko luke. Hala ere, muinoetako estaiak jasan duen gizalditako kudeaketaren ondorioz, egun oso banaketa mugatua dauka. Lurzoru azidoetan agertzen da, gehienetan malda handiko guneetan.

Pagadia, pagadiak dira estai menditarreko (500-600 metrotik gora) baso-mota potentzial nagusia.

Honenbestez, ondorioztatu daitekeena da Amasamendin kanpoko espezieekin landatutako lurzoruak mendi osoaren %62 hartzen duela.


3.2.EZAUGARRI OROKORRAK


KOKAPENA. Villabonako udalerria, Gipuzkoako ekialdean kokatzen da, Tolosaldea deritzan eskualdean. Iparretik, Andoain eta Aduna ditu mugakide; mendebaldetik, Zizurkil eta Asteasu; ekialdetik, Berastegi eta hegoaldetik, Anoeta, Irura eta Tolosa.

GEOGRAFIA. Udalerriaren azalera, 1.756 hektareakoa da. Oria ibaiaren ubidean du altuera baxueneko eremua (50 metro inguru) eta altuera maximoa Belabieta inguruan dago (673 metro).

GUNE BABESTUAK. Leitzarango Biotopo babestua (415/1995 Dekretuak izendatzen duena) eta Natura 2000 Sarearen Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE), ES2120013. Bertan, Villabonako eremuan kokatzen den Ibarrolako erreka hartzen du batik bat, baina baita Amasamendiko Leitzaran aldera doan arroak, Espazio natural garrantzitsuen katalogo irekian azpimarratzen den moduan. Horretaz gain, Leitzaran, Hernio, Araxes edota Aiako Harriak babestutako gune naturalekin lotzen dituen korridore ekologikoak ere hartzen du Amasamendia.

ESKU-HARTZE EREMUA. Honen bidez aurkezten dugun proiektuak, 2 zati nagusi ditu. Batetik, 2021eko udazkenean egingo den matarrasaren ondorioz soila geratuko den partzela (20 bat ha) bertako **haritz kanduduna (*Q.robur*) gailentzen den baso misto atlantiarrean birmoldatzea.** Bestetik, **Amasamendirako sarrera naturala den Otsabiko eremu d**egradatua berroneratu, balioan jarri eta Villabonako Onura Publikoko mendia den Amasamendiren erakuslehio bilakatu.





3.3.PLANGINTZA ETA IRISMENA

Proiektu hau bere osotasunean garatu ezkero bi hilabeteko egikaritze epea aurreikusten du. Edozein dela onarturiko proposamena landaketa lanak azaroan egikaritzeko hilabeteko epe aurreikusi da landare gazteak lur berotan sustraitzeko aukera egokienak eskaintzen dituelako. Plangintza honen xedeetako bat eremu ezberdinetan esku hartuz eta uda erditik aurrerako sasoiari begira lanak modu jarraian burutu eta garai hotzenak iritsi aurretik bukatuta uzteko aurreikuspena dute.

KRONOGRAMA: Amasa-Villabona — ASTEKAKO PLANGINTZA


Kod	unt	Deskribapena	Ord	A1	A2	A3	A4	A5	A6	A7	A8
			503,0	URRIA				AZAROA			
				1 2 3 4 5	6 7 8 9	10 11 12 13	14 15 16 17 18	19 20 21 22 23	24 25 26 27 28	29 30 31 32 33	
01											
K1		**MANDABIETA EREMUA**	155,0								
K1 1	Unt	Landaketak burutu ahal izateko desbrozaket	32,00					16 16			
K1 2	Unt	Hazi zertifikatutik eratorritako **Haritz (Quer**	75,00						16 16 16 16 16	16	
K1 3	Unt	Auzolanaren antolaketarako komunikazio la	32,00							16	
K1 4	Unt	Mikorizaturiko **gaztainondo hibrido (Casta**	8,00							8	
K1 4	Unt	Mikorizaturiko **Haritz (Quercus robur)** zuh	8,00							8	
K2		**OTSABIKO EREMUA**	252	16 16	16 16 16	16 16 16 16					
K2 1	m2	Eremuko desbrozaketa lanak burutzea	16	16							
K2 2	PA	Hondakinak atera eta zaborren kudeaketa	16	16							
K2 3	PA	Hondea makina txiki baten laguntzaz eremu	48		16 16 16						
K2 4	Unt	Thuya seto bat eraitsi eta zabortegira eramo	8		8						
K2 5	Unt	Errepideko pinturaren bidez autobusek buelt	16		16						
K2 6	Unt	Stabex motako zoladura malgua sortzeko la	24		24						
K2 7	Unt	Euste hormaren konponketa lanak burutzea	16,0		16						
K2 8	ML	Plastiko berziklatuzko zutabe eta akazia ohol	20,0		20						
K2 9	Unt	Akazia oholekin (200x400zm) eginiko azale	36,0		12 12 12						
K2 10	Unt	Picnic mahaien hornikuntza eta kokokazioa	12,0			12					
K2 11	Unt	Landare lur kamioi baten hornikuntza eta lu	12,0			12					
K2 12	Unt	Eremuan zehar lurrak berdindu, rotabateatu,	28,0				12 16				
K3		**SEÑALEZTAPENA**	96								
K3 1	Unt	Señaleztapen elementuen diseñu lanak burutze	16,0	16			16				
K3 2	Unt	Amasako atea señaleztapen nagusiarne sorkun	32,0	16			16 16				
K3 3	Unt	Ibilbideen eta zerbitzu ekosistemikoen informazi	16,0	16			16				
K3 4	Unt	Oinezko zein BTT ibilbideak erregulatzeko señale	32,0	16 16 12				16 16			

3.4. DESKRIBAPEN XEHATUA

a) **MANDABIETA EREMUKO PIÑUDIA** berroneratzea

DESKRIBAPENA

Aurtengo udazkenean matarrasaz bi partzela botako dira, denetara 22,75 ha-ko azalera hartzen dutenak, banda marroiak jota erortzeko arriskuan dagoen intsignis pinuak dira gehienak, oinezko ugari ibiltzen den gunea izanik arriskua suposatzen dute, eta haritz kanduduna (*Q.robur*) gailenduko den baso misto atlantiarrean birmoldatuko da.






Partzela hauetan errekasto ugari daude eta hainbat eremutan azpibasoa nabarmen ari da azten tartean bertako haritza, gaztainak, hurritz, zein gorostiak gorpusten ari direlarik. Fauna aldetike re aberastasun nabarmena dute, bereziki 1-7A partzelak izan ere orkatzak, basurdeak, katajineta, lepahoriaipurtatxa6-2-A partzelan piñudia egoera okerrenean dagoela aurreikusiz erabateko soilketa burutuko da aurten bertan eta 5000 ale inguru haritz sustrai bistan landatuko dira.

ESKU HARTZEA

Ingurune honetan haritz kanduduna gailenduko den Baso mistoa indartu nahi da honen segida ekologikoa emanez baita mikorizaturiko zuhaitzak auzolanean landatu eta hauen funtzionamendua probatuz. Proposatzen diren lanak hauek dira:

- Desbrozaketa selektiboak burutu
- Harizti mistoa garatzeko landaketa gazteak burutzea sustrai bistako landareekin.
- Auzolanerako deidalidaren bidez herritarrak sensibilizatu eta aktibatzea.
- Nikorizaturiko zuhaitzen bidez basoaren anistasuna eta dibertsifikazioa probatu.

HELBURUA ETA INPAKTUA

- Lurrazal guztia: **227.500 m²**
- Kokapenaren degradazio maila: **handia**
- Lortu nahi den segida ekologikoa: **hariztia nagusitzen diren baso hostozabala**
- Leheneraturiko zerbitzu ekologikoa: **erregulazio naturala eta gozamena**

b.1. OTSABIKO Harrera eremua

DESKRIBAPENA.

Herrigunearen ekialdean aurkitzen da eta garai bateko zabortegian eraikiriko parkearen eremua da. Gune honetako hainbat eremu erabat degradatuak daude, "chavolismoa" eta erabilera okerragatik. Hala ere herritarrentzako erreferentziazko eremu bat da aire libreko kirolak egin ahal izateko.





ESKU HARTZEA.

Gune honetan lekuaren kokapena medio Amasamendiko baso eremuetara abiatzeko erreferentziazko gunea bihurtu liteke eremua berroneratu eta bisitarientzako oinarrizko azpiegitura batzuk aurreikusi ezkero. Ondorioz eremu honetan ondoko esku hartzeak proposatzen dira (zehaztasun gehiagorako ikus planuak):

- Txaboletako zaborrak erretiratu eta berroneratzea.
- Bertako landarediaren desbroze edo eraisketa selektibo bat burutzea.
- Parkeko berdegunean zehar landare lurra berritu eta belar ereintzak burutzea
- Oinarrizko azpiegiturak berreskuratzea, mahaiak, señaleztapena, autobusen maniobra gunea.

HELBURUA ETA INPAKTUA

- Lurrazal guztia: **7288 m2**
- Kokapenaren degradazio maila: **altua**
- Lortu nahi den segida ekologikoa: **basorako ekotonoa**
- Lehenerauriko zerbitzu ekologikoa: **eremu osoaren gozamena, erregulazioa eta ezagutza**
- Klima aldaketara egokitzeko egindako ekarpena: **Garraio kolektiboa kontuan hartzea.**

Lanen egikaritza plana

5.1. OBRA PLANA

"Amasamendirako sarbidea berroneratzeko proiektua" gauzatu ahal izateko jorratuko diren lan atalak honako hauek izango dira eta aipatzen diren ordena jarraituz egingo dira.

- **Desbrozatze eta eraiste lanak.** Leku batzuetan lehenengo esku hartzea izango da ondoren eremua berroneratu ahal izateko. Landaketak nagusi diren kasuetan Azaro aurreko hilabetera egokituko dira lan hauek.

- **Lur mugimenduak.** Hondeaketa lana eguraldi lehorra dela burutuko dira lehenik eta sortzen den lurra lekuan bertan perfilatzeko erabiliko da. Behar izan ezkero belar ereintzak burutuz.

- **Igeltseritza lanak**.. Desbrozatze eta eraiste lanen ondoren hainbat gunetan igeltseritza lanei ekingo zaie. Beti lekuak ematen duen harri materiala erabiliz eta kanpotis hormigoia sortzeko materiala ekarriaz.

- **Egur lanak.**. Egur lanak burutzeko lehenik eremuan sortu liteken egurra erabiliko da. Tarimen kasuan bertako piñu termotratatuzko materiala erabiliko da. Zintarriak autoclavean trataturiko R4 motakoa izango dira.

- **Altzariak eta señaleztapena**. Berroneratze lan hauetan kolokatu behar diren señaleztepenen ainguratzea altzairu galbanizatuzkoak izan beharko dute eta zimentazio txikien gainean ainguratuak joango dira.

- **Landaketak**. Landaketak orohar azaroan burutuko dira eta landareak baimenduriko mintegietatik eratorriak izango dira, dela Foru Aldundietako mintegiak edo bertako zuhaitzen genetikarkein lan egiten duten mintegi pribatruetakoak.

5.2. LANAK BURUTZEKO EPEA OROKORRA

“**Amasamendirako sarbidea berroneratzeko proiektua** “ proiektua burutzeko epea 1.5 hilabetekoa da. Kontuan izanik lan batzuk eguraldi onarekin burutu behar direla eta gure klimatologiarekin hau batzuetan zailtzen denez, 2. aste gehitu dizkiogu obra burutzeko epeari. Hau denari azaroan burutu beharreko landaketak gehitu behar zaizkio. Ondorioz lan guztiak jarraian egin ezkero **8 aste inguruko iraupena** izan dezakete gehienez.

KRONOGRAMA: Amasa-Villabona			ASTEKAKO PLANGINTZA																																				
		503,0	A1					A2					A3					A4					A5					A6					A7					A8		
			URRIA																				AZAROA																
Kod	unt	Deskribapena	Ord	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	29	30	31	32	33
01																																								
K1		MANDABIETA EREMUA	155,0																																					
K2		OTSABIKO EREMUA	252																																					
K3		SEÑALEZTAPENA	96																																					

5.3. DENBORA PLANA

Denbora plana esku hartze eremuak proiektu osoan duen garrantziaren arabera gauzatuko dira beti bi edo hiru laguneko lan talde batek beharrezko lanabesekin beharko lukeen lanak aurreikusiz. **Orotara berroneratzeko lanetan 503 ordu inguruko lan karga** aurreikusten da proeitku osoa garatu ahal izateko.

Proiektu honek **helburutzat dituen xedeei begira** aztertu ezkero proposatzen den denbora plan honetan ondoko denborak aurreikusten dira:

100 ordu Estalitako lurrazala areagotzea

252 ordu Ingurunearen gaitasun hobekuntza

96 ordu Erregulazio lanak

Atalka aztertu ezkero **degradazio maila altuena duten inguruneetan**, hots, **Mandabieta eta Otsabiko mugetan ia 260** ordu inguruko lan karga aurreikusten da. Izan ere berroneratzeko zein erresilientzia inpaktu handiena eskaintzen duten inguruneak izanik esfortzu berezia egitea aurreikusten baita. Bestetik **250 bat ordu ingurunearen gaitasunak hobetzera** bideratuta egongo dira eta gainerakoa, eremuak berroneratzera.

6. SEGURTASUNA, OSASUNA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA

6.1. HONDAKINEN KUDEAKETA

Legeak eskatzen duen ildotik obra eraikuntzaren arduraduna Hondakinen Kudeaketa plan bat aurkeztu beharko dio bere kontura obra zuzendaritzari. Hondakinen sorkuntzarik aurreikusten ez den arren obra zuzendaritzak eraikitzaileari hondakinen kudeaketa txostena eskatuko dio beharreko ikusi ezkero. Txosten honetan, atal honetarako aurreikusten den aurrekontua 0 €-koa da.

6.2.SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERKETA.

"Amasamendirako sarbidea berroneratzeko proiektua " urte natural ebzerdinetan burutuko dira eta aurrekontu orokorra 200.000,00 €-tik beherakoa denez, legeak ez du segurtasun eta Osasun Proiektu garatua eskatzen eta oinarrizko proiektua lantzearekin nahikoa da. Oinarrizko proiektua gai hauetan lan egiten duen enpresa batek garatuko du eta proiektua garatuko duen enpresaren kontura joango da. Atal honi dagokion aurrekontu batazbeste 400 €-koa izatea aurreikusten da.

7. AURREKONTUA

7.1. EXEKUZIO MATERIALAREN AURREKONTUA

Arestian aipatu bezala proiektu honetan ikastetxeak dituen bi eraikin ezberdinetako kanpo espazioak kontuan hartzen dira, urte natural ezberdinean gauzatuko eta derrigorrezko jarraiak izan beharrik gabe.

Ondorioz "**Amasamendirako sarbidea berroneratzeko proiektua** " lanen Aurrekontua **62.788.3 €**-koa da.

7.2. LIZITAZIO OINARRIAREN AURREKONTUA

Aurrekontu orokorra **62.788.3** € tan gelditzen den "**Amasamendirako sarbidea berroneratzeko proiektua** " Lizitazio Aurrekontu osoa **75.973,85** €-koa da BEZ-a barne..

8. IDAZLANAREN EGILEAK

Proiektu honen idazlanaren parte hartu duten profesionalak Kimubat enpresako bulego teknikoa izan da Iker Goikoetxea (Nekazal Ingeniari Tekniko eta paisajista), Iban Simon Iruretagoiena (paisajista), Aitziber Otegi (Biologoa) eta Maria Odriozola (Arkitektua), Mikel Igarataundik zuzendua.

- Iban Simon (Paisajista)




- Maria Odriozola (Arkitektua)



- Aitziber Otegi (Biologoa)



- Iker Goikoetxea (Nekazal Ingeniari eta Paisajista)



MEMORIA TEKNIKOA 02



Amasamendirako sarbidea berroneratzeko proiektua

2021/05/13

AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

A15 Autobidea

Udal muga

Herrigunea Villabona


Herrigunea Amasa

Andoain

A1 Autobidea

A1 Autobidea

Udal muga



Amasamendirako sarbidea egituratzeko proposamena

PROPOSAMENA: PROPUESTA: **PROPOSAMENA** PROPUESTA

Kokapena Emplazamiento: BILLABONA

Helbidea Dirección:


Sustatzailea Promotor: Amasa-Villabonako udala

egilea autor: Lorezain Paisaiatzaile. Iban Simon
Nekazal Ingeniari Teknikoa. Iker Goikoetxea
Arkitektoa. Maria Odriozola
Ingeniari Industrialdi Ekoteknologikoa. Ander Telleria

Izarraitz lorezaintza SLL

eskala escala 1/150

B01



Deskribapena

Amasa - Villabonako udalerrian natur eremu nagusia amasa mendiko inguruneak osatzen du. Herritarrentzat zein ingurumenarentzat badira bertan hainbat bereizgarri garrantzitsu, hala nola:

- Herri jabetzako baso publiko hazalera handia.
- Baso naturalen berreskurapen lanketa bat.
- Larre paisaia garrantzitsu bat.
- Hiru mendi ibilbide markatu.
- Iturburu eta errekasto ugari
- Borda egitura ugari.
- Elementu megalitikoak
- Egitura hidrauliko bereziak
- Harkaitz labarretako landare komunitateak

Ondorioz Otsabiko ingurune hau eremu aproposa da Amasamendiko natur ondarearen ezagutza eta sarbide gune gisara. Ondorioz eremu hau egituratzen joan ahal izateko kontuan izan beharreko hainbat ezaugarri edo **IRIZPIDE NAGUSI KONTUAN IZAN BEHARREKOAK DIRA**:

1. Degradaturiko hainbat eremu berreskuratzea.
2. Biharko hirigintza planak kontuan izatea.
3. Aisialdi gune gisa indartzea.
4. Zerbitzu ekosistemikoen kontserbazioa sustatzea.
5. Sentsibilizazio eta informazio gune izatea.
6. Praktika jasangarriak sustatzea.

LEYENDA

1 unt	•	• Esku hartze eremua
3 unt	•	• Ibilbide markatuak
8 unt	•	• Gailurrak
xx Ha	•	• Herri lurrak
xx Ha	•	• Berreskuratze azalera
65 ml	•	• Degradaturiko eremuak

Amasamendirako sarbidea egituratzeko proposamena

PROPOSAMENA:
PROPUESTA:

OROKORTASUNAK
GENERALIDADES

Kokapena
Emplazamiento: BILLABONA

Helbidea
Dirección:


Sustatzailea
Promotor: Amasa-Villabonako udala

egilea
autor: Lorezain Paisaialaria, Iban Simon
Nekazal Ingeniari Teknikoa, Iker Goikoetxea
Arkitektoa, Maria Odriozola
Ingeniari Industrialia Ekoteknologian, Ander Tellería

Izarraitz Lorezaintza SLL

eskala
escala: 1/150

B02



Deskribapena

Mendabietako eremuan udalaren eskuetan dauden bi partzela berroneratzeko ekintza burutuko dira aurten. Partzela bata 6-2-A eta 1-7-A zenbakia dutenek 5.28Ha eta 17,47Ha dituzte hurrenez hurren. Orotara harizti misto gisara berreskuratu nahi den eremu honek 22,75ha-ko esku hartze ermeua izango du.


Partzela hauetan errekasto ugari daude eta hainbat eremutan azpibasoa nabarmen ari da azten tartean bertako haritza, gaztainak, hurritz, zein gorostiak gorpusten ari direlarik. Fauna aldetike re aberastasun nabarmena dute, bereziki 1-7A partzelak izan ere orkatzak, basurdeak, katajineta, lepa hori aipurtatxa...


Egingo dire lanak

6-2-A partzelan piñudia egoera okerrenean dagoela aurreikusiz erabateko soilketa burutuko da aurten bertan eta 5000 ale inguru haritz sustrai bistan landatuko dira.

Aldiz 1-7-A zenbakia duen partzelan berriz soilketa selektiboagoa burutuko da aurtengo urtean izan ere bertako basoa pixkanaka nagusitzen ari dela ezagun du. Ondorioz ingurune honetan beste 500 ale haritz (quercus robur) landatuko dira segida ekologikoa bizkortzeko.

Kolore gorriz Mandabietako ingurua, konifero baso heldua, Lasturmendi berde argiz harizti landatu berria, Lasturren berde ilunez berez etorritako haritz amerikar, haritz eta haltzak.









Amasamendirako sarbidea egituratzeko proposamena

PROPOSAMENA:
PROPUESTA:

1 eremua PROPOSAMENA
PROPUESTA intervención 1

Kokapena
Emplazamiento
BILLABONA

Helbidea
Dirección


Sustatzailea
Promotor
Amasa-Villabonako udala


egilea
autor
Lorezain Basolaritza. Iban Simon
Nekazal Ingeniari Teknikoa. Iker Goikoetxea
Arkitektoa. Maria Odriozola
Ingeniari Industrialaren Ekotekinologian. Ander Tellería

Izarraitz Lorezaintza SLL

eskala
escala 1/150

B03


1953 argazkia
1977 argazkia
2001 argazkia
2016 argazkia



Deskribapena

Berreskuratu nahi den eremu hau Otsabiko parkea bezela ezaguna da herrian eta 90. hamarkadan berreskuratu zen egungo hormigoi ustiategiaren zati bat izatetik. Kokapen estrategikoa du Amasa-Villabonako mendi ermeuetarako sarbide gisa, izan ere Otsabi errekari jarraituz mendi zein baserri inguruneetarako sarbide naturala da hasieran errepide bidez ondoren mendi bidez.

Eremuaren ustiategi jatorria medio haitz labar baten azpian aurkitzen da eta bere ekialdean bere aktibitatea amaitzear den Arbe enpresa kokatzen da. Iparraldean barreiaturiko etxe familiabakarrak daude eta mendebaldean berriz herriguneko azken auzategia.

Otsabiko ingurune honek ingurumen berreskurapen eta sentsibilizazio ikuspegi batetik dituen **bereizgarri esanguratsuenak** ondoko hauek lirateke:

- Eraikuntza enpresa baten landa eremua du ondoan
- "Chabiolismo" eremu haundi xamarrak herri lurretan.
- Bertan behera utziriko parke periurbano bat.
- Ibilbide markatuak
- Etxola egitura eta zabor multzoak
- Zuhaizti eremu gazteak
- Baserri ibilbidea

LEYENDA

1 unt	—	Esku hartze eremua
222 m2	—	Degradazio eremu altua
309 m2	—	Birgaitze ermeua
1 unt	⊙	Egungo zuhaitzak
38 unt	—	Ibilbide markatuak
65 ml	▨	Errepide ariñak
3.5 ml	▨	Etxebizitzak
491 m2	▨	Lantegia







Amasamendirako sarbidea egituratzeko proposamena

PROPOSAMENA:
PROPUESTA:

PROPOSAMENA
PROPUESTA

Kokapena
Emplazamiento: BILLABONA

Helbidea
Dirección:

Sustatzailea
Promotor: Amasa-Villabonako udala


egilea
autor: Lorezain Paisaialdiaka, Iban Simon
Nekazal Ingeniari Teknikoa, Iker Goikoetxea
Arkitektoa, Maria Odriozola
Ingeniari Industrialа Ekoteknologian, Ander Tellería

Izarraitz Lorezaintza SLL

eskala
escala: 1/150

B03





Deskribapena

Otsabiko parkea berreskuratzearen helburu nagusia "Amasamendiko atea" bihurtzean datza. Berreskuratu nahi den eremu honek herritarrentzako aisialdi gune gisa antolatzeaz gainera bertako zein kanpokoentzat herriko natur ondarearen sentsibilizazio gune bilakatzean datza.

Helburu hauek betetzeko ingurune honetan hainbat erabilera edo zonaldetze aurreikusten dira:


1. ONGI ETORRIA: Gunearen sarreran ibilgailuentzako aparkalekua eta señaleztapen elementu ezberdinek osatuko dute natur ermeurako "atea" izaera hori markatzeko.
2. PARKEA: Adin tarte ezberdineko pertsonentzako babes eta aisialdiko eremu gisara egituratuko litzateke, eguzki zein itzaleko eremuekin, ibilbideak, eserlekuak eta ur iturriekin
3. NATUR KIROLAK: Eremu hau aire librean egin ohi diren ezhoiko hainbat kirol praktikatu ahal izateko egituratzea proposatzen da, gizartea natur ermeuarekin sentsibilizatu asmoz erabilera ludikoa sustatuz.
4. SENTSIBILIZAIZO ELEMENTUAK Espazio honetan zehar udalerriko natur ondarearen inguruko informazioa biltzen duen ibiobide tematiko perimetrala proposatzen da.


LEYENDA

- • Hormigoizko zorua
- 1822 m2 • Berreskuraturiko zuhaixka eremua
- 2800 m2 • Belardia
- 38 unt • Egungo zuhaitzak
- 469 m2 • Stabex zorua
- 48 m2 • Landaketak
- 3.5 ml • Egur azalerak









Eibarko San Andres ikastetxeko jolas eremuaren proposamena

PROPOSAMENA:
PROPUESTA:

PROPOSAMENA
PROPUESTA

Kokapena
Emplazamiento EIBAR

Helbidea
Dirección

Sustatzailea
Promotor Eibarko udala

egilea
autor Lorezain Paisaialaria. Iban Simon
Nekazal Ingeniaritza Teknikoa. Iker Galkoetxea
Arkitektoa. Marta Odriozola
Ingeniari Industrialа Ekotekнologian. Ander Telleria

Izarraitz lorezaintza SLL

eskala
escala 1/150

B05

MEMORIA EKONOMIKOA 03



Amasamendirako sarbidea berroneratzeko proiektua

2021/05/13

AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

Errebote plaza z/g. 20150 Amasa-Villabona (Gipuzkoa) - Tel. 943691200. IFK P2008100F

01. AURREKONTUAREN OROKORRA

"Amasamendirako sarbidea berroneratzeko proiektua "

KAPITULU.	LABURPENA	EURO	%
K1	Mandubietako eremua berroneratzeko.....	27.124 €	43,2
K2	Otsabiko eremua berreskuratzea.....	25.266 €	40,2
K3	Ezagutza eta gozamerakneo señaleztapen lanak.....	10.398 €	16,6
	EGIKARITZA LANEN AURREKONTUA OSOA	62.788,3 €	100,0 €

AURREKONTUA OROKORRA GUZTIRA (BEZa barne)	75.973,85 €

Azpeitia 2021/05/16

Udala Zuzendaritza

AURREKONTU PARTIDAKA LABURTUA 01

"Amasamendirako sarbidea berroneratzeko proiektua "

	Laburpena	KOPURUA	PREZIOA	OROTARA
K1	**Mandubietako eremua**			**27.124 €**
	BIRLANDAKETA			**18.664 €**
K1 1	**Unt** Landaketak burutu ahal izateko desbrozaketa lan selektiboak burutzea	1	1587,5	**1587**
K1 2	**Unt** Hazi zertifikatutik eratorritako **Haritz (Quercus robur)** zuhaitzen RD40/80 edo antzekoen landaketa	7000	2,4	**17077**
	AUZOLANA			**8.460 €**
K1 3	**Unt** Auzolanaren antolaketarako komunikazio lanak burutzea, papeleria eta kudeatzea	1	1344,9	**1345**
K1 4	**Unt** Mikorizaturiko **gaztainondo hibrido (Castanea sativa)** zuhaitzen RD40/80 honikuntza	500	6,9	**3471**
K1 4	**Unt** Mikorizaturiko **Haritz (Quercus robur)** zuhaitzen RD40/80 honikuntza	500	7,3	**3643**
K2	**Otsabiko eremua berreskuratzea**			**25.266 €**
	BERRONERATZE LANAK			**11.807 €**
K2 1	**m2**. Eremuko desbrozaketa lanak burutzea	1200	0,8	**932**
K2 2	**PA**. Hondakinak atera eta zaborren kudeaketa	1	2130,4	**2130**
K2 3	**PA**. Hondea makina txiki baten laguntzaz eremu degradaturako sarbidea egokitu eta txukunketa lanak	1	3717,8	**3718**
K2 4	**Unt**. Thuya seto bat eraitsi eta zabortegira eramateko lanak burutzea	1	700,0	**700**
K2 5	**unt**. Errepideko pinturaren bidez autobusek buelta hartzeko eremua margotzea	80	23,7	**1896**
K2 6	**unt**. Stabex motako zoladura malgua sortzeko lanak (e=15zm) parkeko sarrera eremuan	55	44,2	**2431**
	PARKEKO ZERBITZUAK BIRGAITZEA			**13.460 €**
K2 7	**unt**. Euste hormaren konponketa lanak burutzea	1	1083,1	**1083**
K2 8	**m.l**. Plastiko berziklatuzko zutabe eta akazia oholekin eginiko itxitura sortzeko lanak	40	51,7	**2067**
K2 9	**unt**. Akazia oholekin (200x400zm) eginiko azalera eremuak sortzea trabiesa berziklatuzko oinarkein	3	1152,7	**3458**
K2 10	**unt**. Picnic mahaien hornikuntza eta kolokazioa	4	658,7	**2635**
K2 11	**unt**. Landare lur kamioi baten hornikuntza eta lumarekin zabaltzea	4	658,7	**2635**
K2 12	**unt.** Eremuan zehar lurrak berdindu, rotabateatu, belarra erein, ongarritu eta alperra pasatzea	900	1,8	**1582**
K3	**Ezagutza eta gozamerakneo señaleztapen lanak**			**10.398 €**
K3 1	**unt**. Señaleztapen elementuen diseñu lanak burutzea	1	2722,9	**2723**
K3 2	**unt**. Amasako atea señaleztapen nagusiarne sorkuntza lanak	1	2552,1	**2552**
K3 3	**unt**. Ibilbideen eta zerbitzu ekosistemikoen informazio mahaiak sortzea	2	1354,6	**2709**
K3 4	**unt**. Oinezko zein BTT ibilbideak erregulatzeko señaleztapenaren hornikuntza eta kolokazioa	1	2414,3	**2414**

EGIKARITZA LANEN AURRKEONTUA (BEZ-ik gabe) 62.788 €